

ECHAVARRI-VIÑA

Este bello pueblo, en unión de Apodaca, disfrutan la misma altitud, constituyendose en las dos localidades del municipio cigoitiano más al Sur, dando vista su caserío a la Llanada Occidental.

Echávarri-Viña se asienta en una pequeña eminencia, una de las últimas que proyectan las faldas del Monte Gorbea, antes de entrar en la zona llana de las estribaciones de la capital de la Provincia, Vitoria-Gasteiz, alcanzando una altitud media sobre el nivel del mar de 560 metros

ETXABARRI-DIBINA

Herri eder hau eta Apadoka altuera berean aurkitzen dira eta Zigoitia udalerrian alderdirik Hegoalderaenekoan aurkitzen direnak dira. Etxetaldea Mendebaleko lautadara begira dauka.

Etxabarri-Dibina gain koskor batean aurkitzen da, Gorbeia mendiaren maldak dituen azkenetako batean; Probintziako hiriburu Gastizen inguruko lautadan sartu baino lehen. Itsasmailatik betez-besteko altuera 560 m.koa du.

Panorámica de Echávarri-Viña.
Antiguo molino.

Etxabarri Dibinako panoramika.
Lehengo errota.

La antiguedad de Echávarri-Viña no la sabemos con certeza, pero sí disponemos de documentos conocidos en la actualidad que citan el año y nombre con que aparecen en ellos. Copiando a López de Guereñu, exponemos a continuación los años y nombres con que aparece este pueblo en los distintos documentos. Así, Echavarri-Divina en el año 1257; Chavari en 1258; Echaverre de Viña en 1294; en 1537 como Chavarri y Echevarre.

Su índice demográfico ha aumentado, lo que constituye un caso singular dentro del municipio, si comparamos el número de habitantes a comienzos de siglo con el censo del año 1982. Mientras en 1910 eran 78 los pobladores, en el año 1982 son 88 los habitantes de hecho los que lo habitan. No obstante, el auge habitacional data de los primeros años de la década de los setenta, por lo que hasta esa época es de suponer que los habitantes del lugar fueran en descenso sobre todo en la época de emigración a la capital de la Provincia, con el auge del sector industrial.

Etxabarri-Dibinaren aintzinatasuna ez dugu zihur ezagutzen; baina gaur egun baditugu dokumentuak, bertan urtea eta haren izena ematen digutenak. Lopez de Guereñu-ri kopiatuz, jarraian emango ditugu urteak eta izenak, nola agertzen bait da herri hau agiri ezberdinetan. Honela Echavarri-divina 1257an; Chavari 1258an; Echaverre de Viña 1294ean; eta Chavarri eta Echaverre 1537an.

Bertako biztanleria gehitu egin da -kasu arrigarria udalerri honetan- mende-hasierako biztale-kopurua 1982ko zentsuak ematen duenarekin konparatuz gero. 1910ean 78 lagun ziren bitartean, 88 dira 1982an egitatezko biztanleak. Hala ere biztanle-gehitzea hirurogeita hamareko hamarkadako lehen urteetatik honakoa da; beraz, uste izatekoa da, garai horretara arte hor ere gutxiten joango zela biztanleen kopurua, industri sektorearen jendeak Probintziako hiribururako joera hartu zuenean batipat.

El encontrarse a tan solo nueve kilómetros del centro de Vitoria, el disponer de un acceso rápido con la construcción de la autovía, el disfrutar de amplias y bellas panorámicas tanto diurnas como nocturnas de la Llanada, pero sobre todo de la capital y, útimamente, del aeropuerto, del que dista tan sólo cuatro kilómetros en línea recta de la torre central del mismo, ha ocasionado una avalancha de personas e inmobiliarias en demanda de terreno para llevar a cabo allí la construcción de nuevas edificaciones de recreo - chalets- utilizados como segundas viviendas, y en algún caso como primera vivienda.

El número de estas nuevas viviendas-recreo sobrepasa holgadamente el correspondiente número de viviendas rurales. El asentamiento de aquellas ocupa las laderas más meridionales del Alto del Grillo, próximos a la orilla izquierda de la carretera vecinal que arriba al pueblo, así como, parte de la zona llana, también al Sur de las casas rurales levantadas al Levante. No obstante, dentro del casco rural primitivo, se vé éste, salpicado por alguna que otra vivienda-recreo.

Su caserío se asienta en una pequeña altura dando vista a la Llanada, pero sin ningún orden urbanístico, es decir de forma espontánea, con los edificios aislados unos de otros, pero próximos entre sí, de tal forma, que todos ellos se encuentran dominados por el templo parroquial que se sitúa al Sur del lugar.

Arquitectónicamente, es muy interesante por encontrarse en él diferentes construcciones que atienden a formas y estilos diferentes. También, desde el punto de vista heráldico, es atrayente por lucir varios escudos y escudetes en dintintos edificios, así como, en herrería, por gozar varios huecos, de rejas, como medida protectora y, a la vez, ornamental.

Una vez tomado el ramal (CV-120) que partiendo de la autovía deja a mano izquierda la planta del Kas, y en terreno de ésta, se halla el antiguo molino de Echávarri-Viña, que ha sido remozado tanto interna como externamente, y que unido a su asentamiento a orillas del Iturrizabaleta, rodeado de frondosa chopera, otorgan al lugar un fuerte sabor bucólico.

Gasteizko hiriburutik bederatzi kilometrotara bakarrik egoteak, autobidearen eraikuntzarekin bide lasterra edukitzeak, gau ta egun ikusmira zabal-ederrak izateak. Lautada aldera, baina bereziki hiriburualdera eta, gaurgero aireportua, honen dorre zentraletik zuzenean lau kilometrotara besterik ez bait dago, . . . Honek guztiak samaldan eraman ditu jendea eta inmobiliariak hara terreno-eske, han aisia-etxe berriak-txaletak-egitera, zeintzu izango diren bigarren bizitzatarako erabiliak, eta batzutan lehen-bizitzatarako ere bai.

Aisia-etxe berri hauek baserri-etxeak baino askoz ere ugariago dira. Aisia-etxe horiek Alto del Grillo-ren Hegoaldeneko maldetan kokatzen dira, herrira doan auzo-bidearen ezkerraldeko ertzetik bertan, eta ordeka-aldeko zati batean ere bai, Ekialdera dauden baserri-etxeetatik Hegoaldera. Dena den, auzogune zaharraren barruan ere badira tarteka aisia-etxe batzuk ere.

Etxe-taldea gain koskor batean kokatzen da, Lautadari begira, baina inolako hirigintza-planik gabe, batzuk han eta besteak hor, elkarrengandik bananduta, baina batabestearen hurbilean, eta denak parroki elizaren menpean. Eliza bera herriaren Hegoaldean dago.

Arkitekturaz oso interesgarria da, forma eta estilo desberdinak jarraitzen dituzten eraikerak aurkitzen dira bertan eta. Heraldika-aldetik ere badu zerk erakarri, zenbait etxetan hainbat harmarri eta harmarritxo ageri bait dira; badira burdinlanak ere zenbait leihoetako burdin-sareetan, etxe-babesgarri eta une berean apaingarri direnak.

Bide-adarra (CV-120) hartuz, autobidetik abiatuz Kas-fabrika ezkerretara uzten duena, eta Kas-en terrenoan Etxabarri-Dibina-ko errota zaharra aurkitzen da, zeina barne ta kanpo berritua izan bait da. Horri gehitzen bazaio Iturrizabaleta errekaren ertzean eta makaldi itzaltsu batek inguraturik egotea, halkoxe giro bukoliko batek jaztzen du lekua.

Excepcional crucero y detalle del mismo.

Ezohizko gurutzadura eta berorren xehetasuna.

Al comienzo de la suave cuesta, medio emboscado por la maraña allí existente, se halla un vetusto crucero que, según reza en la inscripción que porta, se remonta al año 1648. Su emplazamiento original se situaba en el denominado cruce de los arrieros, lugar éste, cercano al actual escenario. El cambio de escenario se llevó a cabo en los últimos años de la década de los sesenta de este siglo. Consta de columna toscana, con base cuadrada de cuatro peldaños en disminución, coronada por cruz, ocupando el anverso, la figura de Cristo crucificado, con la Piedad en el reverso. reverso.

La iglesia parroquial, al igual que en la mayoría de los pueblos, se ubica en la parte Sur del lugar, dominando bajo su mirada a los edificios que conforman a aquél. Dedicada a la Asunción de Nuestra Señora, presenta alrededor de su única nave un gran número de contrafuertes con los faldones de su cubierta prolongándose hasta formar unos aleros que protegen a aquella del agua. la torre, de planta cuadrada, situándose en el segundo cuerpo las campanas y remetido éste por cúpula de sillería. Restos románicos se aprecian en las paredes del templo.

Aldapa leunaren hasieran eta inguruko sastrakak erdiestalirik gurutze zahar bat aurkitzen da, bertako inskripzioak dioenez 1648koa dena. Mende honen hirurogeiko hamarkadako azken urteetan jarri zen orain dagoen lekuan, ba lehen toki honetatik gertu dagoen mandazainen bidegurutzean aurkitzen zen. Koloma toskanotarra du, gutxitzen doazen lau harmailazko oinarri laukitua duena eta gurutze batez koroaturik dagoena; aurrekaldean Kristo gurutziltzatua dauka buru-hezur gainean eta atzekaldean Pietatea.

Parroki eliza, herririk gehienetan bezala, herriaren Hegoaldera aurkitzen da, bere begiratupean herriko etxeak bilduz. Amabirgina Asuntziokoari eskainia dago eliza. Bere nabe bakarraren inguruan kontrahorma ugari ageri ditu, bere teilatu-hegalen bidez eliza uretatik babesten dutela. Dorrea oinplanoz karratua da; kanpaiak haren bigarren gorputzean aurkitzen dira; gorputz hau berriz harlanduzko ganga batek bukatzen du. Gerakin erromanikoak ageri dira elizaren hormetan.

Iglesia parroquial:
Panorámica de su emplazamiento.
Detalle de la bien trazada torre.

Parroki eliza:
Beronen kokapen-panoramika.
Dorre ongi trazatuaren xehetasuna.

Delante de la iglesia existe el clásico espacio de recreo en el que la comunidad tras asistir a misa disfruta de una hermosa vista desde él, hoy día disminuida por el desmesurado crecimiento que han experimentado los arbustos, a los pies del mirador. En la parte trasera del templo, en uno de sus lienzos, entre dos confrafuertes, se ha aprovechado como frontis del frontón, al aire libre, que allí se desarrolla.

Al lado del camino, frente a la cabecera de la iglesia se desarrolla el caserío n.° 19, cuyo edificio principal, junto con la cabaña, descuellan sobre el resto de las construcciones, que se sitúan en la parte posterior de aquel.

El acceso al patio, donde se halla la entrada a la casa y al borde, se realiza mediante amplia puerta en muro portador de sencillo tejadillo que sirve de elemento protector al escudo que luce aquel, a un lado de la puerta.

Elizaurrean, ohizko jolastokia aurkitzen da jendearentzat; ikusmira ederra dago bertatik, nahiz eta gaur egun murriztua egon bista hori, begiralekuaren oineko zuhaiskek hartu duten luzeragatik. Elizaren atzekaldean, bi kontrahormen arteko paretagunea zerupeko pilotalekuaren aurre-horma izateko aprobetxatzen da.

Kaminoaren aldamenean eta alizburuaren parean zk. 19ko baserria aurkitzen da, bere eraikin nagusia, egilehorrarekin gailentzen bait da haren atzekaldean dauden osagarrien eta ikuilu etab.en gainetik.

Patiorako sarrera, hemen aurkitzen da etxerako eta borderako sarrera ere, horma batean dagoen ate handi batetik zehar egiten da. Hormak badu halako teilatu koskor bat ere, atearen albo batean ageri duen harmarria babesteko.

Casa junto a la iglesia: Alzado Sur.
Cabaña.
Escudo.

Etxea elizaren ondoan: Hegoaldeko altxaera.
Etxordea.
Armarria.

La distribución interna ha sufrido numerosas reformas a lo largo de los años. Poseía horno de pan dentro de la casa, el cual fué derruido para la construcción de un cuarto de baño. En su planta baja se sitúa la cocina y un dormitorio, hoy comedor, a un lado del portal, y al otro, el cuarto de baño, antes, el horno de pan y otra dependencia. La escalera, frente al acceso de entrada, es de ida y vuelta, con armazón y gradas de madera. Aquella, desemboca en una dependencia, la sala, desde la que se accede a los distintos dormitorios.

El amplio borde presenta un interesante entramado portante. Consta de tres gruesas carreras que se apoyan en los dos muros laterales, siendo ayudados a descargar el peso por jabalcones; encima de las carreras, hay sin aparente ligazón, una serie de tochos o calzas de madera que forman la pendiente de los faldones y sobre los que descansan el caballete y las correas que sostienen a su vez, a la cubierta propiamente dicha.

Barne-banakerak berritualdi ugari ikusi ditu urteren buruan. Lehen ogi-labe bat zuen etxebarruan eta lurreratua izan zen, bertan bainu-gela bat egiteko. Bere behe-oinean aurkitzen dira, ataurrearen alde batean, sukaldea, gaur jangela bihurtua, eta bestaldean bainu-gela, lehen ogi-labe zena, eta beste barrundegi bat. Eskailera, sarrerearen parean, joan-etorrikoa da, zurezko armazoi eta mailekin. Eskailera barrundegi batera, salara, ateratzen da, eta handik joaten da gainerako logeletara.

Borda handiak barne-bilbadura interesgarria ageri du. Hiru habetzan lodi ditu, bi albo-hormetan irozotzen direnak eta jabaloiez lagundurik pisua deskargatzen dutenak. Habetzanen gainean, gaur egun ageriko loturarik gabe, egurrezko totxo edo altxagarri-sail bat, zeintzuk egiten bait dute teilatuhegalen malda, beren gainean irozotzen direlarik galdurra eta habetzanak, benetako teilatuari eusten diotenak.

Casa n.º 18. Desmedrada fachada.
Casa n.º 13. Asimétrica distribución de huecos.

18 zk. etxea. Fatxada alperrik galdua.
13 zk. etxea. Baoen banaketa asimetrikoa.

Descendiendo por la senda que discurre por delante del anterior caserío, llegamos a la carretera la cual atravesamos y seguimos camino hacia una de las urbanizaciones enumeradas al principio, no obstante, antes de llegar a ella, nos desviamos con rumbo Norte, por el camino que nos acerca al caserío nº 18, delante del cual, separado por estrecha servidumbre, se desarrolla la huerta, en cuyo linde con el camino se despliega una sobria parra.

A la altura de la era del camino anterior se encuentra la fachada del caserío catalogado con el nº 13. De planta rectangular acusada con la era al final del edificio y el portegado proyectándose fuera de uno de los alzados, cubriéndose por la prolongación de la vertiente correspondiente de la cubierta del edificio principal.

La fachada, de poca altura, no dispone de sobrado en la entrecubierta, ocupando las habitaciones la parte central, con el fín de aprovechar la máxima altura de techos. El horno de pan, inutilizado, se proyecta al interior del borde. La reja que luce una de las ventanas de la planta baja es recia, repitiéndose, varias veces, en el pueblo.

Aurreko baserriaren aurretik doan bidezidorretik jaitsiaz, kaminora iristen gara; berau zeharkatu eta, hasieran aipatutako urbanizazio batzutara joaten gara. Bertara heldu baino lehen, Iparraldera okertzen dugu, zk. 18ko baserriarekin komunikatzen gaituen bidetik. Baserri honen aurrean eta zortasunezko bide estu batek banandurik, baratza aurkitzen da, bidearekiko mugan mahatsparra koskor bat daukala.

Aurreko bidearen larrain-parean zk. 13arekin katalogatutako baserriaren fatxada aurkitzen da. Oinplanoz laukizuzen nabaria, eraikinaren azken aldean larraina duela, eta egilehorra altxaeretako batetik kanpora projektatzen dela eta eraikin nagusiaren teilatu-zatiaren luzadurak estaltzen duela.

Fatxada, altuera apalekoa da, eta ez dauka ganbararik estalkitartean. Gelak erdialdean aurkitzen dira, beren sabaientzat ahalik eta altuerarik handiena aprobetxatzearren. Ogi-labea, gauzaeztandua dago, eta bordearen barrualdera projektatzen da. Behe-oineko leiho batek ageri duen burdin-sarea sendoa da, eta hainbat aldiz errepikatzen da herrian.

Varias muestras edificatorias en el camino hacia la iglesia.

Eraikin-erakuskari batzu elizarako bidean.

Siguiendo el camino, en la desembocadura de éste con la carretera vecinal, topamos con la casa nº 12, reformada recientemente, como segunda vivienda.

Detrás de ésta y a orillas de la carretera se levanta pequeña edificación, hoy día almacén, pero hasta hace unos años, sala-concejo de la localidad.

En el camino o calle pavimentada que nace en este lugar y que va en dirección a la iglesia se hallan una serie de edificaciones sin ningún tipo de interés y entre los que se hallan el juego de bolos de reciente construcción, la antigua escuela y vivienda del maestro, un caserío cerrado y de sórdido aspecto, y para finalizar, otro de construcción moderna en cuyas partes posteriores se desarrollan las edificaciones complementarias.

Bideari jarraituz, eta hau kaminora ateratzen den lekuan zk. 12ko etxea topatzen dugu, oraindik orain berritua eta bigarren bizitza bezala erabilia.

Honen atzean eta kaminoaren ertzean, eraikin koskor bat dago, gaur biltegi dena, baina orain dela urte gutxi arte herriko kontzeju-sala zena.

Toki honetatik ateratzen eta elizaldera doan bide edo kale zolatuan inolako interesik ez duten etxe-sail bat aurkitzen da. Beren artean aurkitzen dira: bolatokia, oraindik gutxi dela egina, eskola zaharra eta maisuaren etxea, baserri itxi eta itxura narratxeko bat; eta, azkenik, modernoki eraikitako beste bat, bere atzekaldean eraikin osagarriak dituena.

Del cruce frente a la sala-concejo parte camino, en dirección Oeste, que nos va a poner en comunicación con el resto de los edificios que conforman este lugar.

El primer grupo caseril, catalogado con el nº 10, presenta una singular tipología apenas vista en esta comarca, lo que lo convierte en uno de los más interesantes no sólo del lugar, sino, también, de la zona.

Delante del grupo se desarrolla un amplio espacio verde salpicado de corpulentos castaños que enmascaran gran parte de su fachada, en las épocas de máxima frondosidad.

Al edificio matriz se anexionan en sus alzados izquierdo y posterior, las correspondientes edificaciones complementarias que confieren al conjunto, de gran voluminosidad.

Su época de construcción data desde antiguo como parecen querer corroborarlo restos de la época renacentista que aún luce. Como consecuencia del paso de los años, de los diferentes propietarios con sus correspondientes dedicaciones, el edificio ha sufrido numerosas reformas, algunas de las cuales de forma negativa para la idiosincrasia del edificio.

En fachada principal luce escudete que se sitúa encima del acceso, habiendo sido éste último transformado, en adintelado, ya que originalmente era bajo arco de medio punto como se puede apreciar por el cercenado sufrido de algunas dovelas. El acceso iba flanqueado por dos diminutas ventanas cuya finalidad sería, las de vigilancia y protección de aquél. Solo una de ellas se conserva, habiéndose aprovechado actualmente su hueco para albergar el contador de la luz. El alféizar de una de las ventanas conserva su ornamento en bolas. Existe espolón de piedra de forma escalonada que sostiene el alero.

Interesante en cuanto a su construcción es el alzado lateral derecho en el que los pisos vuelan ligeramente con las cabezas de los forjados vistas. Así mismo, el frailero ve aumentado su voladizo en concordancia con los del piso, en el último se efectúa de forma escalonada.

Kontzeju-salaren pareko bidegurutzetik bide bat ateratzen da Mendebaldera, herri hau osatzen duten beste etxeekin komunikatuko gaituena.

Lehenengo topatzen dugun baserria zk. 10arekin katalogatutakoa da. Oso tipologia berezia du, eskualde honetan nekez aurkitzen dena, eta beraz guztiz interesgarria da herrian ezeze eskualde osoan, ere.

Etxeaurrean berdegune zabal bat dago tarteka gaztainondo handiak dituela. Gaztainaok, hostoaldia puri-purin dutenean, estali egiten dute fatxadaren zati handi bat.

Eraikin nagusi edo bizitzari, atzekaldean eta ezkerretako altxaeran eraikin osagarri bana eransten zaizkio, multzo osoari buelo handia ematen diotela.

Bere eraiki-data aspaldikoa da, oraindik ageri dituen zenbait arrasto errenazentistek berresten bide duten bezala. Urteen igarotzeak, jabe ezberdinen eskutan egoteak eta helburu desberdinetarako erabili izateak eraldaketa ugari ikuserazi dizkio etxeari, eta horietako batzuk negatiboak izan dira eraikinaren zertarakoarentzat.

Fatxada nagusian harmarritxo bat ageri du ategainean. Ategaina dinteldun egin dute, baina jatorriz erdipuntuko arku zen, dobela batzuk jasan duten mozketatik nabari daitekeen bezala. Sarrerak bi leiho txiki zituen alde banatan, helburutzat zuketenak, atea zaintzea eta babestea. Bietatik bat bakarrik kontserbatzen da, eta txoko bat argiaren kontagailua ipintzeko erabili da berriki. Leihoetako baten barlasaiak hantxe dauka oraindik bere bolazko apaingarria. Harrizko ezproin mailakatu bat ere badago teilatu-hegalari eusten.

Eraikuntzari dagokionez, eskuin-alboko altxaera da ohargarria, non pisuek kanpora ateratzen bait dira piska bat bistako solairu-buruen itxuran. Fraile-hormak gero eta handiagoa du bere hegalkina pisuek dutenaren arabera; azkenekoan mailakaturik egiten da.



Casa n.° 10. Excepcional alzado Levante, vista de su alzado Sur y detalle de acceso y escudo.

10 zk. etxea. Sortaldeko altxaera ezohizkoa, bista bere Hegoaldeko altxaeratik eta sarrera eta armarriaren xehetasuna.

Una de las ventanas de su planta baja, lateral derecho, es portadora de una reja similar a la del caserío n.º 13.

Behe-oineko leiho batek, eskuiko saihetsean, zk. 13ko baserriak bezalako burdin-sare bat dauka.

Bella estampa de la zona húmeda la que ofrece el caserío n.º 6.
Desmantelado escudo de la casa n.º 7.
Importantes transformaciones son las que ha experimentado el caserío n.º 7.

6 zk. baserriak eskaintzen duen zona hezearen estampa ederra.
7 zk. etxeko armarri kendutakoa.
7 zk. etxeak eraldakuntza garrantzitsuak ezagutu ditu.

Siguiendo el camino, nos topamos con el caserío nº 6, al que le da una gracia especial su atrevida visera, una de las de mayor vuelo que hemos encontrado en nuestro viajar por la Provincia. Se encuentra apoyado, el alero, en frailero y en tres toscos, pero, recios jabalcones.

Bajo el enlucido de la cal se vislumbra el clásico entramado de madera que muestra las antiguas construcciones del país. Estamos seguros que dejando vista dicha solución estructural, se vería realizado aún más, el singular encanto de esta casa labriega.

La casa nº 7 es de nueva construcción y ocupó parte de la antigua casa cural, de la que se conserva un escudo y el acceso que estaba formado por arco de medio punto con largas dovelas, de tal manera que la clave y contraclave aparecen cercenadas horizontalmente.

Bideari jarraituz zk. 6ko baserria aurkitzen dugu. Grazia espeziala ematen dio honi bere teilatu-hegal ausartak, probintzia osoan zehar aurkitu dugun hegalik handienekoa bait da berau. Hegal hau fraile-horma batean eta hiru jabaloi trakets-sendoetan irozotzen da.

Karearen azpitik erdi-agerian dago egurrezko bilbadura, herrialdeko eraikin zaharrek izan ohi dutena. Zihur nago bilbadura hori bistaraziko balitz, nabariago geldituko litzatekela oinetxe apart honen xarma.

Zk. 7ko etxea eraikiera berrikoa da, eta zatiro lehengo apaiz-etxearen gainean dagoena; oraindik ere han gordetzen ditu apaiz-etxearen harmarria eta sarrera, zeina bait zegoen dobela luzeko arku erdipuntuzkoz eratua, halako eran, ze giltzarria eta kontragiltzarria horizontalka moztuak bait daude.

Caserío n.° 2. Vista y detalle de reja.

2 zk. baserria. Bista eta burdinsarearen xehetasuna.

Entre los dos caseríos anteriores, los números 6 y 7, parte un camino en dirección Norte que nos traslada a los edificios más septentrionales del lugar, los números 2 y 3.

El caserío n.° 2, con parte de su fachada enmascarada en los tiempos frondosos por el gran castaño que se sitúa delante, presenta dos detalles a destacar: primeramente, señalar que en una de las ventanas del piso, sus jambas están formadas por dos piezas que han sido cortadas de una sola y que presenta una labra en forma cuadrangular; en segundo lugar, la reja que presenta uno de los huecos de la planta baja lleva forja similar, a las que se encuentran en este lugar.

Tanto los anteriores, como otros pequeños, pero significativos detalles, nos hacen suponer que son restos de alguna mansión de abolengo y que, al arruinarse, han sido reaprovechados.

Aurreko bi baserrien artetik, zk. 6 eta 7koen artetik alegia, bide bat ateratzen da Iparraldera, herriko alderik Iparrenean aurkitzen diren zk. 2 eta 3ko etxeetara eramango gaituena.

Zk. 2ko baserriak, hosto-garai nagusietan fatxada-zati bat bere aurreko gaztainondoak estaltzen diola, bi detaile ditu aipatzekoak: lehenengo esango dugu, bere pisuko leihoetako batean, zangoak puska bat-beretik ebakitako bi piezaz osatuak daudela eta laukizuzen bat bezala labraturik; eta bigarren, behe-oinean dituen baoetako batek burdin-sare bat duela, herri honetan aurkitzen diren beste batzuren antzekoa.

Xehetasun horiek, eta txikiak baina esanguratsuak diren beste batzuk uste erazten digute handiki-etxeren baten ondarrak ote diren eta hura aurritu zenean berraprobetxatuak izan ote diren.

Caserío n.° 3. Alzados Sur y Oeste.
Detalle de escudete.
Caserío n.° 8. Aspecto antes de la restauración.

3 zk. baserria. Hegoaldeko eta Mendebaldeko altxaerak.
Armarritxoaren xehetasuna.
8 zk. baserria. Eskailerako kalostrak. Armarria.

El caserío n.° 3 representa varios cuerpos, destacando entre todos ellos el correspondiente al edificio-principal o vivienda. El dintel de su acceso ve acortada su luz por las ménsulas que poseen las jambas en su parte alta. Luce escudete en el dintel.

Las cuadras, pajares, era, cobertizo, etc. se desarrollan en su parte posterior y lateral.

Zk 3ko baserriak hiru gorputz ageri ditu, guztien artean eraikin nagusi edo bizitzari dagokiona gailentzen delarik. Bere atalburuari mentsula batzuk kentzen diote argia, zeintzuk beren goiko partean bait dituzte zangoak. Atalburuan harmarritxoa ageri du.

Ikuilu, lastategi, larrain, estalpe etab.ak etxearen atzekaldean eta saihetsean aurkitzen dira.

Caserío n.º 8. Aspecto actual.

8 zk. baserria. Oraingo ikuspegia.

Retornando de nuevo hacia el centro del lugar y encaminándonos en dirección Oeste, llegamos al caserío nº 8, cuya casa-vivienda ocupa una mínima superficie comparándola con el resto de edificaciones de que se rodea.

El remozamiento que ha experimentado, recientemente, ha supuesto, la pérdida, casi total, de su primitivo y peculiar aspecto de construcción arcaica. Bajo el enlucido que actualmente lleva, se esconde, en un alzado levante, un cerramiento realizado con entramado de madera, relleno de ladrillo, descollando las cabezas del envigado del piso.

Atzera herriaren erdialdera joaz eta Mendebaldera bideginez, zk. 8ko baserrira ailegatzen gara, zeinaren etxebizitzak hedadura minimoa hartzen bait du, inguruan dituen eraikinekin konparatuz.

Malda lehun baten hasieran aurkitzen da. Arestian eman zaion berritualdiarekin erabat galdu du ia bere arkaiko-kutsua. Gaur egun duen zarpeatuaren azpian, Ekialdeko altxaera batean, itxiera bat dago egurrezko bilbaduraz eta adreiluzko betegarriz egina, pisuko habe-buruak mabarmen dituela.



Casa n.º 8. Balaustrada de la escalera. Escudo.

8 zk. etxea. Eskailerako kalostra. Armarria.

Un gran e interesante escudo se encuentra sobre el alzado Levante, situándose encima del primitivo acceso, hoy tapiado y transformado en ventana. El acceso actual, se halla por el lado mediodía del edificio.

Una de las rejas que lucía uno de sus huecos ha sido arrancada y sustituida por otra moderna, sin interés; aquella fué forjada por el mismo herrero que las que hemos visto en el pueblo.

Interiormente presenta una bonita escalera en dos tramos en escuadra cuya barandilla tiene los balaustres torneados y los pilarotes de su arranque presentan bellos dibujos geométricos.

Harmarri handi eta interesgarri bat aurkitzen da Ekialdeko altxaeran. Lehen bateko sarreraren gainean aurkitzen dena; lehengo sarrera hormatua eta leiho bihurturik dago gaur. Oraingo sarrera etxearen hegoaldetik dago.

Baoetako batek ageri zuen burdin-sarea kendu eta beste moderno bat interes gabekoa, jarri dute haren lekuan. Hura eta herrian ikusi ditugun beste burdin-sareak erramentari berak eginak dira.

Barruan bi atal eskuairan dituen eskailera polit bat dauka; horren barandak barkalun torneatuak ditu eta bere hasierako pilaroteak dibujo geometriko ederrak ageri dituzte.

Bello y pintoresco aspecto ofrece el cambio de fábricas del caserío n.° 9.

9 zk. baserriko fabrika-aldaketak itxura ederra eta pintoreskoa eskaintzen du.

Retornando de nuevo al centro y siguiendo la carretera pavimentada que se dirige al Sur de la población, hallamos otro de los edificios interesantes de este lugar de Echávarri-Viña. Catalogado con el n.° 9 tiene éste una gran superficie habitable, de forma rectangular, en uno de cuyos lados menores se sitúa el alzado principal. Este presenta, en su fábrica, mampostería en sus dos plantas y entramado de madera relleno de cerámico, en el sobrado. El cambio de fábricas queda reflejado por aparejo a base de tres hiladas de cerámico, las extremas a tizón y la intermedia más gruesa formando ángulo en forma de diente de sierra.

Berriro herdialdera itzuliz eta herriaren Hegoaldera doan bide zolatuari jarraiki, Etxabarri-Dibina-ko beste eraikin interesgarri bat aurkitzen dugu. zk. 9arekin katalogatua dago eta bizileku handia dauka, laukizuzenekoa, bere alde laburretako batean altxaera nagusia duela. Honen fabrika harlangaitzezkoa da bere bi oinplanoetan eta zeramikakiz betetako zur-bilbadura ganbaran. Fabrika-aldaketa zeramikakizko hiru hilaraz egindako tolestura batek adierazten du, ertzetakoak zeharka bait daude eta erdikoa lodiagoa zerrahortzak bezala angelu egiten duela.

Ermita San Esteban: Alzado Levante.
Alzados Sur y Oeste.

San Esteban ermita: Sortaldeko altxaera.
Hegoaldeko eta mendebaldeko altxaerak.

El recerco del acceso se efectúa mediante moldura en oreja lo que hace datar al edificio, a mediados del siglo XVIII.

Siguiendo el camino en dirección Sur y después de haber dejado atrás una serie de viviendas unifamiliares, llegamos a una de las partes más altas del lugar y en el que se levanta una antigua ermita, hoy cerrada y sin función religiosa y cuyo patrono fué San Esteban. Un acceso tapiado y una ventana, ambos bajo arcos, recuerdan su antigüedad.

Sarreraren azpadura belarri-molduraz egiten da, honek etxea XVIII. mende-hasieran datatzeko modua ematen digu.

Bideari Hegoaldera segituz, eta familibakarreko etxebizitza-sail bat atzera utzi ondoren herriko parterik altuenetako batera ailegatzen gara. Ermita bat dago bertan, gaur itxia, eta ja erlijiofuntziorik ez duena. San Esteban izan zen bertako zaindari. Sarrera hormatua eta lehio bat, biak arku banarekin, dira beren aintzinatasunaren adierazgarri.

Desangelada y apartada construcción que cobija a la ermita de San Roque.

San Roke ermita babesten duen eraikin grazirik gabekoa eta apartatua.

Al Norte de Echávarri-Viña se encuentra la única ermita que se conserva. Está dedicada a San Roque, y según la tradición se construyó en 1590 con motivo de una mortífera peste que asoló al vecindario. Su construcción entra dentro de lo rústico.

Etxabarri-Dibinako Iparraldean aurkitzen da, oraindik kontserbatzen den ermita bakarra. S. Rokeri eskainia dago, eta tradizioaren esatez 1190ean eraiki zen, auzoa soildu zuen izurrite herriotzatsu baten kariaz. Eraikuntza landatarra da.